

Merkatuen segmentazioa:

Nork ez du nahi gure busean igo eta gurekin eta gainontzeko talde-kideekin bidaiatzea? Gure zerbitzua edonork kontratau dezake. Baldintza bakarra bidaiatzeko, kultura eta herrialde ezberdinetako festak ezagutzeko interesa izatea da. Bezeroa adin txikikoa izatekotan, bere gurasoekin edo legezko tutorearekin joan beharko da.

Gure bezeroak espainiarrak zein atzerritarrek izan daitezke. Espainiarren kasuan, bertako kulturaren inguruan gehiago sakondu nahi dutenak izango lirateke eta atzerritarren kasuan, Espainia gertutik ezagutu nahi dutenak.

Talde aniztasuna sustatzen dugun eanean, talde eta kolektibo ezberdinetara heltzen saiatuko gara. Horregatik, gure merkatuaren segmentazioa oso zabala da. Hasiera batean maila ekonomiko ertaina-altua duten bezeroak izatea espero dugun arren, egoera ekonomiko sozial baxuagoa duten pertsonengana ere helarazten saiatuko gara. Hauei, diru laguntzen bidez, zein enpresaren esfortzuari esker prezio "berezia" ezarriko diegu.

Mugikortasun urritasuna duten pertsonak, itsuak, gorrak, mutuak eta beste ez-gaitasunak dituztenak erakartzen saiatuko gara. Gure bidaia, batzuentzat amets bat izan daitekeena, egi bihurtzea nahi dugu. Gure bezeroentzat, sentsibilitatea, enpatia, elkartasuna, errespetua eta laguntza ezinbesteko alderdiak izango dira.